


Iturriak aipatzea

Erabili duzun irudiaren iturriak aipatzean, irudiaren jatorria jakinarazten da. Irudia fidagarria da? Badu loturarik zure gaiarekin edo kontaktzen duzun gertaerarekin? Baduzu erabiltzeko eskubiderik?




Argazkiak




Bezeroak, Elanto kooperatibaren denda ibiltarian
Irudia: CC BY 4.0 Helsinkiko udal museoa/argazki-
lari ezezaguna. Kotsultaren data: 2019/12/09

1a






Argazkiak



Garraioak erakarritako gizonak furgonetara igotzen dira,
inolako susmorik gabe


Irudia: CC BY 4.0 Helsinkiko udal museoa/argazkilaria
ezezaguna. Kontsultaren data: 2019/12/09

1a






Argazkiak




Tehtaankatuko komun publikoa
Irudia: CC BY 4.0 Helsinkiko udal museoa/Kristiina
Savola. Kotsultaren data: 2019/12/09

1b






Argazkiak



Karaoke-tabernako zerbitzuak
Irudia: CC BY 4.0 Helsinkiko udal museoa/Kristiina
Savola. 2014/10/01ean aterata.

1b





Urkatuaren jokoia



13 grey squares in a row.

1 white square followed by 18 grey squares in a row.

2 grey squares, 1 white square, and 11 grey squares in a row.

1 grey square, 1 white square, and 16 grey squares in a row.




Kodea:

Four empty square boxes for a code.



Hitzen lur zingiratsuan



Egiletasun-eskubide moralak egile batek bere obraren gainean duen izaeraren aintzatespena babesten du. Lan bat ezin da aldatu baldin eta egilearen legezko interesei edo haren izen onari kalte egiten bazaie; hala aitortzen du integritaterako eskubide moralak. Halaber, obra ezin da modu edo testuinguru iraingarri batean jarri publikoaren eskura.

Zure lanean jada jendarteratutako obra plastiko edo fotografikoak erabil ditzakezu, aipu-mugarekin bat etorritz. Horretarako, kontuan hartu behar duzu erabilera hori aipu, azterketa, iruzkin edo iritzi kritiko gisa egin behar dela, betiere irakaskuntza- edo ikerketa-helburuarekin. Egilearen izena eta iturria aipatu behar dira.

Obrak originala izan behar du, egile-eskubideekin babestuta egongo bada.



Plagioa beste egile baten obraren erreprodukzio edo eraldaketa da, haren baimenik gabe egiten dena eta norberaren gisa aurkezten dena. Plagioak egilearen ondare-eskubideak (erreprodukzioa edo eraldaketa) eta eskubide moralak urratzen ditu (batez ere egiletasunaren eskubide morala).

Aipua jatorrizko testu-zati baten hitzez hitzeko adierazpena da (ahoz edo idatziz) (irudi edo argazki solte bat bada, osorik erabiltzen da).



Kodea:




Entzun egileari



Oso zaharra zen liburu bat aurkitu nuen, eta komikia zen oso-osorik. Lauki bikainak eta zoragarriak zituen! Sinestezina da norbaitek hainbeste denbora eman ahal izana marrazten. Ni hasi nintzen, baina ezin izan nuen orri bat ere amaitu, garbiketa-lan bat egitera irten behar nuelako.



Lan hau egiteko motibazioa ez da dirua, baina bada gure lanbidea eta ogibidea.



Kodea:



Zuzena ala okerra



1

Abeslariaren edo taldearen baimena behar da kontzertu baten emanaldia grabatzeko eta bideoa Interneten partekatzeko.

Zuzena

Okerra

2

Egile-eskubideak iraungi egiten dira egilea hil ondoren.

Zuzena

Okerra

3

Egile-eskubideak Jabetza Intelektualaren Erregistroan erregistratu behar dira obra babestuta egon dadin.

Zuzena

Okerra

4

Jada ezagutarazi den hirugarren baten argazki bat erabil daiteke zure eskola-lanean aipu, azterketa, iruzkin edo iritzi kritiko gisa, egilearen izena eta iturria adieraziz.

Zuzena

Okerra

Kodea:



Jabetza intelektualeko eskubi- deen kudeaketa-erakundeek jarduera sortzailea sustatzen dute



1. VEGAP

A

Ikus-entzunezko Produktoreen Eskubideak Kudeatzeko Erakundea (EGEDA): ikus-entzunezko ekoizleak ordezkatzen ditu.

2. AIE

B

Artista Interpretatzaileak, Kudeaketa Elkartea (AISGE): aktoreak, bikoizleak eta dantzariak ordezkatzen ditu.

3. SGAE

C

Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroa (CEDRO): idazleak, itzultzaileak, kazetariak eta liburu-, egunkari-, aldizkari- eta partitura-editoreak ordezkatzen ditu.

4. DAMA

D

Visual Artista Plastikoen Kudeaketa Erakundea (VEGAP): ilustratzaileak, argazkilariak eta eskultoreak ordezkatzen ditu.

5. CEDRO

E

Eskubide Intelektualak Kudeatzeko Elkartea (AGEDI): musika-ekoizleak ordezkatzen ditu.

6. AISGE

F

Artista Interpretatzaile edo Exekutatzaileak, Espainiako Kudeaketa Elkartea (AIE): artista interpretatzaileak edo musika-jotzaileak ordezkatzen ditu.

7. SEDA

G

Ikus-entzunezkoen Egile Eskubideak (DAMA): gidoi-lariak eta zinema-zuzendariak ordezkatzen ditu.

8. AGEDI

H

Egile Eskubideen Espainiako Elkartea (SEDA): musikagileak eta musika-editoreak ordezkatzen ditu.

9. EGEDA


I

Egile eta Editoreen Elkarte Orokorra (SGAE): musikagileak, dramagileak, musika-editoreak, gidoilariak eta zinema-zuzendariak ordezkatzen ditu.

Kodea:



Galderak



Nolako da errealitatea, une honetan, egile-eskubideen eta lan sortzailearen ikuspegitik?
Eztabaidatu taldean ikuspegi desberdinak, honako galdera hauei erantzuteko:

1. Zertarako behar dira egile-eskubideak?

2. Pentsatu egile-eskubideek eskaintzen duten babesaren onuradun izan zitezkeen egoeretan. Lan sortzailearen bat egitea gustatuko litzaizuke?

3. Zertarako behar da artea? Zer eragin izango luke zugan eta zure bizitzan munduan libururik, aldizkaririk, musikarik, filmik edo bideo-jokorik ez egoteak?

4. Zergatik ezin dira libreki erabili musika, film, liburu, argazki eta abar guztiak? Bestalde, norbaitek zergatik nahi izan dezake bere lana libreki partekatu, adibidez, Creative Commons lizentzia batekin?

5. Zure kasuan, zer egiten duzu zure talde gogokoenak aurrera egin dezan?